



TOLOSAKO
UDALA

GOBERNU BATZARRA

2020.03.10

Jarduneko Alkatea:
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:
Begoña Tolosa Mendia
Nerea Letamendia Belloso
Patxi Amantegi Zubiria
Jose M^a Villanueva Telleria
Xabier Balerdi Tolosa

Jarduneko Idazkaria:
Karmele Contreras Goikoetxea

Jarduneko Kontuhartzailea:
Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeiko martxoaren hamarrean, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. 2020ko martxoaren 3ko bilkurako akta onartzea.
2. Amarotz Auzo Elkarteari erabilera bereziko baimena ematea, Auzoetxe gunea baliatzeko.
3. Dekretu hauen berri ematea:
 - 2020/0459 dekretua: 2020/01 eta 2020/02 faktura zerrendak.
 - 2020/0466 dekretua (2020/3 faktura zerrenda)
4. Dekretu hauen berri ematea: 2020ko otsailaren 14tik 20ra (2020/316-2020/387).

1. 2020KO MARTXOAREN 3KO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2020ko martxoaren 3an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

2. AMAROTZ AUZO ELKARTEARI ERABILERA BEREZIKO BAIMENA EMATEA, AUZOETXE GUNEA BALIATZEKO.

Tolosako Udala Amarotz auzoan kokatutako hainbat higiezin jabe da. Horien artean, garai batean eskolaurrea zen eraikinarena, "Auzoetxe" izenarekin ezagutzen dena.



TOLOSAKO
UDALA

Auzoetxe "Patronato San Miguel" gisa ezagutzen zen eraikina (Amarotz 31) da. Erosketa data: 1950. Erreferentzia katastrala 7575043 (519 liburukia, 47 liburua, 174 folioa, 1.235 finka, 1. inskripzioa). Auzoetxe izenarekin ezagutzen da, eta, berriki, zaharberritze lanak tarteko, berregokitu egin dute osorik.

Tolosako Ondasunen Udal Erroldan dagoen informazioaren arabera, eraikin hau jabari publikokoa da, zerbitzu publikoari atxikita.

Eraikitako azalera 488,80 m² bada ere, azalera erabilgarria 406,65 m² da, eta, behin zaharberritze lanak amaitu eta gero, bertan aurki ditzakegu honako espazio hauek: sarrera, sarrera-halla, 2 korridore, KZ gunea, biltegia, erabilera anitzeko gela, pilotalekua, 2 bulego, areto txikia, areto nagusia, antzokia, sukaldea eta 2 komun (Gune osoaren banaketa eta azalera desberdinak jasotzen dituen planoaren eranstean da).

Amarotz Auzo Elkarteak eraikin horretan bere auzo jarduerak aurrera eramateko interesa azaldu du, azken hamarkadetan erabili bezala, eta horregatik, behin eskaeraren egokitasuna eta espazioaren baldintzak aztertu ondoren eta kontuan izanik udal teknikariak egindako proposamena, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Amarotz Auzo Elkarteari Auzoetxe Gunea erabiltzeko baimena ematea, 4 urteko iraupenarekin eta beti ere honako baldintza hauei atxikirik:

LEHENA.-

Tolosako Udalak Amarotz Auzo Elkarteari deskribaturiko lokala erabiltzen uzten dio jarduera soziokulturalak egiteko, eta ezin izango du erabili irabazi asmoak dituzten jardueretarako.

BIGARRENA.-

*Erabilera baimen honek gehienez ere **4 urteko iraupena** izango du, ebazpen hau jakinarazten denetik kontatzen hasita. Era berean, lokalak libre utzi beharko dira Tolosako Udalak hala eskatzen badu, baina, beti ere, hiru hilabeteko aurrerapenarekin jakinarazi beharko dio libre uzteko erabaki arrazoitua.*



TOLOSAKO
UDALA

HIRUGARRENA.-

Dagokion udal teknikariak urte amaierako txostena egin beharko du, egiaztatzeko lokalak lehen klausulan adierazitako helburuen arabera erabilera izan duela eta baldintza egokitan dagoela. Txostena aurkakoa bada, arrazoi izango da erabiltzeko baimen hau berehala bertan behera uzteko.

Era berean, baimen hau bertan behera geldituko da baldin eta zarata edo kalteei buruzko denuntzia arrazoiturik badago eta egiaztatuta gelditzen bada.

Horren haritik, bereziki Auzoetxen antola daitezkeen ikuskizun eta jardueri dagokienez, kontuan hartu beharko da araudi hau: 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Jendaurreko Ikuskizunen eta Jolas Jardueri buruzkoa, eta 17/2019 Dekretua, otsailaren 5koa, jendaurreko ikuskizunen eta jolas-jardueren legea garatzeko erregelamendua onartzen duena.

LAUGARRENA.-

Baimen hau doanekoa denez, ez da inolako kanon ekonomikorik ordaindu beharko.

BOSGARRENA.-

Auzo Elkarreak baimen honen ondorioz dituen eskubide eta betebeharrak ezin izango dira transferitu, ezta eskualdatu ere.

SEIGARRENA.-

Erabiltzailearen kargura izango dira elektrizitate-, ur- eta gas-kontsumoak eta zabor eta gainerakoek eragindako gastuak eta horiekin loturiko instalazioen mantentze-lanen gastuak. Hala, beharrezkoa izango da erabiltzaileak instalakuntzen ikuskapenak egitea, legeak ezarritako epeen barruan.

ZAZPIGARRENA.-

Erabiltzailearen ardura izango da lokalak garbitzea, kontserbatzea eta zaintzea, eta egoki diren ohizko konponketak. Udala inolaz ere ez dago aurreko eginkizun horietan laguntzera behartuta, eta ikuskapenak egiteko eskubidea du, erabiltzaileak bere eginbeharrak zuzen betetzen dituen edo ez egiaztatzeko. Era berean, Udalak ahalmena du erabiltzaileari baimen honen, erabileraren eta legearen arabera betetzea dagokiona exijitzeko.

ZORTZIGARRENA.-

Lokaletan ezin izango da egokitze-obrarik egin, non eta Tolosako Udalak idatziz baimentzen ez duen.



TOLOSAKO
UDALA

Ohiko konponketak ez diren gainontzeko obra, aldaketa edo lanetarako ere beharrezkoa izango da Udalaren baimena. Ondorioz, beharrezko udal baimena eskatu, izapidetu eta lortu beharko da aurretiaz.

BEDERATZIGARRENA.-

Erabiltzaileak konpromisoa hartuko du utzitako lokalean material kaltegarri, osasungaitz edo arriskutsurik ez gordetzeko, eta jarduerak eragin ditzakeen ondorio negatiboak eragozteko bidezko diren neurri zuzentzaileak hartzeko.

HAMARGARRENA.-

Baimen hau amaitutakoan, erabiltzaileak kontserbazio eta erabilera egoera egokian itzuliko ditu lokalak.

HAMAIKAGARRENA.-

Erabiltzaileak beharrezko aseguruia kontratatu beharko du eraikin barruan dauden eta udal jabetzakoak ez diren ondasunak aseguratzeko.

Erabiltzaileak erantzun egin beharko du jardueren ondorioz edo espazioaren okupazio soilaren ondorioz pertsoneri eta ondasunei sortzen dizkien kalteengatik. Beraz, erantzun beharko du Udalari nahiz hirugarrengoei eragindako kalteengatik, eta, horretarako, erantzukizun zibileko poliza bat kontratatu beharko du higiezinei, pertsoneri edo hirugarreni sortutako kalteen aurrean erantzuteko, gutxienez 600.000 €-koa (erantzukizun zibil lokatiboa barne).

HAMABIGARRENA.-

Baimen honek erregulatu ez duen hartan, oro har, gizalegez jokatu behar da.

BIGARRENA.- Udal arkitekto teknikoak bere txostenean jarritako baldintza hauek ezartzea:

a) Ikuskizunak eman daitezkeen geletan ezin izango da gehieneko edukiera edo aforoa gainditu, kontuan izanda gela bakoitzeko aforoa honako hau dela:

- Antzokia: 37 lagun.
- Areto txikia: 30 lagun.
- Areto nagusia: 52 lagun.
- Pilotalekua: 31 lagun.
- KZ-Gunea: 8 lagun.



TOLOSAKO
UDALA

- * Begi bistan adierazi beharko da gela bakoitzaren gehieneko edukiera edo aforoa.
- b) Jarduerak 07:00etatik 23:00etara bitartean egingo dira.
 - c) Zaratari dagokionez, ezingo dira gainditu 213/2012 Dekretuak, urriaren 16koak, Euskal Autonomi Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoak, ezarritako balioak.
 - d) Edukierari, ordutegiari edo ebakuazio-planari eragiten dieten jendaurreko ikuskizunak edo jarduerak egin ahal izateko, aurrez Udalari jakinarazi behar diote edo bere baimena lortu.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Amartz Auzo Elkarteari, Komunitate eta Gobernantza Sailari eta Kontuhartzaitzari.

3. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA:

- 2020/0459 DEKRETUA: 2020/01 ETA 2020/02 FAKTURA ZERRENDAK.

Idazkariak 2020/0459 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Zk.: 2020/0459

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioako Azpisaileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrira eta Alkatetzaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatetsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2020ko honako faktura-zerrenda hauek:

1. zenbakia duena, 14.516,51 eurokoa

2. zenbakia duena, 16,- eurokoa

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoak daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau



TOLOSAKO
UDALA

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- Onartzea faktura-zerrenda hauetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

1. zenbakia duena, 14.516,51 eurokoa

2. zenbakia duena, 16,- eurokoa

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Tolosan, 2020ko martxoaren 4an

Zinegotzi delegatua

Nire aurrean,
idazkaria

Begoña Tolosa Mendia

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

- 2020/0466 DEKRETUA (2020/3 FAKTURA ZERRENDA)

Idazkariak 2020/0466 Dekretuaren berri eman du. Honelaxe dio:

ZINEGOTZI DELEGATUAREN DEKRETUA

Zk.: 2020/0466

BEGOÑA TOLOSA MENDIA andreak, Ogasun eta Finantza Administrazioiko Azpisaileko zinegotzi delegatuak, emana, Toki-Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 eta 21.3 artikuluetan ezarritako eskumenekin bat etorrita eta Alkatezaren Dekretuak zinegotzi delegatuei emandako eskumenez baliatuta.

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzkoak, bere 41.2 artikuluan xedatzen duenaren arabera, alkateak aintzatsiko ditu legez eskuratutako gastuen konpromisoetatik sortzen diren betebeharrak.



TOLOSAKO
UDALA

Hori horrela, zinegotzi delegatuari dagokio onartzea gastuetatik eratorritako 2020ko honako faktura-zerrenda hau:

3. zenbakia duena, 48.161,42 eurokoa

Zerrenda horretan sartuta dauden fakturek oniritzi teknikoa daukate eta behar bezala fiskalizatuta daude.

Horiek horrela, zinegotzi delegatuak honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENIK.- Onartzea faktura-zerrenda honetako faktura guztien eta bakoitzaren gastua eta ordain ditzatela agintzea:

3. zenbakia duena, 48.161,42 eurokoa

BIGARREN.- Dekretu hau jakinaraztea Tolosako Udaleko kontuhartzaileari eta Tokiko Gobernu Batzarrari.

Tolosan, 2020ko martxoaren 5ean

Zinegotzi delegatua

Nire aurrean,
Idazkaria

Begoña Tolosa Mendia

Begoña Garmendia Vázquez

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

4. DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2020KO OTSAILAREN 14TIK 20RA (2020/316-2020/387).

Alkatetzak eta zinegotzi delegatuek 2020ko otsailaren 14tik 20ra bitartean (DK 2020/316-2020/387) egin dituzten dekretu hauen berri eman zaie bertaratutakoei.

Honako hauek dira:



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
316	2020	14/02/2020	FESTAK	2020KO IÑAUTERIETAKO SALMENTA POSTUEN ESLEIPENA.
317	2020	14/02/2020	HIRIGINTZA	CONSTRUCCIONES AMENABAR-I ERREKERITZEA VOITH GOROSTIDIN KONPONKETAK EGITEA
318	2020	14/02/2020	IDAZKARITZA	ARRILLAGA PLAZAKO 42(-2) APARKALEKUAREN ERABILERA LAGATZEA.
319	2020	14/02/2020	EUSKERA	2019/1713 DEKRETUA ZUZENTZEA
320	2020	14/02/2020	PERTSONALA	12 TRAFIKO LAGUNTZAILE KONTRATATZEA
321	2020	14/02/2020	HIRIGINTZA	KONDEANeko ALDAPA 12 EITAREN ONDORIOZ SORTUTAKO ZENBAIT KONPONKETAK EGITEKO BAIMENA EMATEA
322	2020	14/02/2020	FESTAK	2020KO IÑAUTERIETAN TOLOSAKO TXARANGEN EMANALDIAK AURRERA ERAMATEKO 76.746 EUROKO GASTUA BAIMENTZEA ETA ORDAINKETAK EGITEA.
323	2020	14/02/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	A.P.PRI BALIOANITZEKO ETXEBIZITZA LAGATZEA
324	2020	14/02/2020	KONTUHARTZAILTZEA	KONPENTSAZIOA
325	2020	14/02/2020	KONTUHARTZAILTZEA	O.H.Z.-N SALBUESPEN ESKAERA
326	2020	14/02/2020	KONTUHARTZAILTZEA	O.H.Z. ITZULTZEA. BAJA OBRA BERRIAGATIK
327	2020	17/02/2020	HIRIGINTZA	KONDEANeko ALDPA 16 EIT-AREN ONDORIOZ ZENBAIT KONPONKETAK EGITEKO BAIMENA EMATEA
328	2020	17/02/2020	HIRIGINTZA	CONSTRUCCIONES EGARALURRI BEHIN-BEHINEAN KONPONDUTZAT EMATE ZAIO ETA UDALAK IKUSKAPENA EGIN BEHARKO DU EGIAZTATZEKO UR SARRERA BERRIAK DAUDEN ALA EZ
329	2020	17/02/2020	HIRIGINTZA	KALE NAGUSIA 30-1.EZKERRA ETXEBIZITZA ERABERRITEKO ETA BEHE ETA LEHEN SOLAIRUAK SEGREGATZEKO BAIMEN ESKAERAKO BAIMEN ESKAERA UKATZEA ETA OBRA HAUNDI ESKAERA NAHIZ SEGREGAZIO ESKAERA BERRIAK AURKEZTEKO ERREKERIMENDUA
330	2020	17/02/2020	DIRU-BILKETA	2169 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA.
331	2020	17/02/2020	DIRU-BILKETA	2916 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA.



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
332	2020	17/02/2020	DIRU-BILKETA	3644 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA.
333	2020	17/02/2020	DIRU-BILKETA	4876 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA.
334	2020	17/02/2020	DIRU-BILKETA	4943 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA.
335	2020	17/02/2020	DIRU-BILKETA	4989 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA.
336	2020	17/02/2020	DIRU-BILKETA	5091 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA.
337	2020	17/02/2020	DIRU-BILKETA	6480 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA.
338	2020	17/02/2020	DIRU-BILKETA	22871 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA.
339	2020	17/02/2020	DIRU-BILKETA	26888 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA.
340	2020	17/02/2020	DIRU-BILKETA	27098 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA.
341	2020	17/02/2020	DIRU-BILKETA	27573 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA.
342	2020	17/02/2020	DIRU-BILKETA	27617 PREMIAMENDU ESPEDIENTEAN AURKEZTU DEN ZATIKAPEN ESKAERA.
343	2020	17/02/2020	UDALTZAINGOA	ISUN ORDAINKETAREN ITZULKETA
344	2020	17/02/2020	UDALTZAINGOA	ESPEDIENTE ZBKIA 4768/2019 DUEN ORDAINKETAREN ITZULTZEA
345	2020	17/02/2020	HIRIGINTZA	LEITZA KALEA 1 ERAIKINEKO EIT-AREN ONDORIOZ SORTUTAKO ZENBAIT KONPONKETA EGITEKO OBRA BAIMENA
346	2020	17/02/2020	IDAZKARITZA	SAN ESTEBAN 1-2KO JABEKIDEEN KUOTAK ORDAINTZEA
347	2020	18/02/2020	EUSKERA	ERROTULUEN DIRULAGUNTZAREN 2. ORDAINKETA
348	2020	18/02/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	KUTXA FINKOKO AURRERAKINA ESKATZEA
349	2020	18/02/2020	FESTAK	2020KO IÑAUTERIETAKO KARROZEI EKARPEN FINKOA ORDAINTZEKO GASTUA BAIMENTZEA ETA DIRU AURRERAKINA ORDAINTZEA.
350	2020	18/02/2020	HIRIGINTZA	LETXUGA KALEA 3-2AB ETXEBIZITZAKO SUKALDEKO KEAK PATIORA ERAUZTEAGATIKO



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
				SALAKETARI ERANTZUNA
351	2020	18/02/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	OPORRAK BAKEAN 2019 - PARTE HARTU DUTEN UDALEN ARTEAN GASTUAK BANATU.
352	2020	18/02/2020	IDAZKARITZA	ESLEITZEA FORU KONTRATAZIOEN ZENTRALAREN BITARTEZ POSTA ZERBITZUA KONTRATATZEKO ESPARRU AKORDIOAN OINARRITUTAKO KONTRATUAREN 2 LOTEAK
353	2020	18/02/2020	HIRIGINTZA	KORREO KALEA 11-1D ETXEBIZITZAKO JABEARI ETXEBIZITZAREN ZIGILUA KENDU ETA BERTAN BIZI AHAL IZANGO DUELA JAKINARAZTEA
354	2020	18/02/2020	PERTSONALA	J.A.S. IKASTAROA (PROCEDIMIENTO ADMINISTRATIVO COMÚN EN LA LEY 39/2015)
355	2020	18/02/2020	KULTURA	E.E.E. UDAL MUSIKA ESKOLAKO IKASLEAREN BAJA ESKAERARI ERANTZUNA
356	2020	18/02/2020	PERTSONALA	N.C.G. IKASTAROA (PROCEDIMIENTO ADMINISTRATIVO COMÚN EN LA LEY 39/2015)
357	2020	19/02/2020	HIRIGINTZA	ZULOAGA TXIKI ATERPETXEKO JARDUERAREN NEURRI ZUZENTZAILEEN ONARPENA ETA UDALAK OBRA KONTRATATZEKO PROZEDURA HASTEA
358	2020	19/02/2020	HIRIGINTZA	UDAL HERRI BIDEEN INBENTARIOKO 2227. ETA 2410. HERRI BIDEAK IRUDIKATUTZEA, I ERASNKINEAN BILDU DIREN KOORDENADETAN OINARRITUTA.
359	2020	19/02/2020	PERTSONALA	CRISTIAN JIMENEZ UDALTZAINA AGENTE LEHENAREN LANAK EGITEAGATIK ORDEZKAPEN ALDEAREN ORDAINKETA ONARTZEN DA
360	2020	19/02/2020	HIRIGINTZA	ASFALTATZE LANAN LANEKO SEGURTASUN ETA OSASUN PLANAREN ONARPENA
361	2020	19/02/2020	IDAZKARITZA	ERROLDA KONTSEILUAK BAIMENDUTA, ZENBAIT OFIZIOZKO BAJA EMATEA ERROLDATIK
362	2020	19/02/2020	HIRIGINTZA	SAN FRANTZISKO 39-41 URBANIZAZIOKO OBRAREN SEGURTASUN ETA OSASUN PLANA ONARTZEA
363	2020	19/02/2020	KONTUHARTZAILITZA	AGARAMUNDU KALEA, 7, KONDEANEGO ALDAPA, 11 ETA EUSKAL HERRIA, 1B ETXEBIZITZETAKO 2020KO MARTXOKO ALOKAIRUAK ETA KOMUNITATE GASTUEN



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
				LIKIDAZIOAK ONARTZEA.
364	2020	19/02/2020	IDAZKARITZA	PLAZA ZAHARRAKO 2 ZENBAKIA DUEN GARAJEA ESKUALDATZEA. JUANA IBAÑEZ CHACARTEGI.
365	2020	19/02/2020	KONTUHARTZAILLETZA	BALIO ANITZEKO ETXEBIZITZA SOZIALEN 2020KO OTSAILEKO ERROLDA ONARTZEA.
366	2020	19/02/2020	HIRIGINTZA	BIZI-BIZIKI SLREN AKTIBATU 2019 DIRULAGUNTZAREN LIKIDAZIOA ONARTZEA
367	2020	19/02/2020	PERTSONALA	O.O.S. ESKAERAREN ERANTZUNA
368	2020	19/02/2020	HIRIGINTZA	LEITZA KALEA 1 BEHEKO (B LOKALA) ETXEBIZITZA BATI LOTUTAKO TRASTELEKUAN EGINDAKO JARDUKETAK ETETEKO AGINTZEA, KOMUNA ERAISTEKO AGINTZEA ETA GAINERAKO LANAK LEGEZTATZEKO AGINTZEA
369	2020	19/02/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	2019KO GIZARTE ZERBITZUEN ETA OSASUNAREN ALORREAN ETA LANKIDETZA ETA GARAPENERAKO DIRULAGUNTZEN PROPOSAMENA ONARTZEA
370	2020	19/02/2020	PERTSONALA	J.E.R. (LAN UTZIALDI LUZAPENAREN ESKAERA)
371	2020	19/02/2020	HIRIGINTZA	GERNIKAKO ARBOLA LORTEGIAK 2 BEHEAN DOKUMENTAZIO AURKEZTEKO ERREKERIMENDUA
372	2020	19/02/2020	KIROLAK	ZUMARDIA ELKARTEA. 2019KO DIRULAGUNTZA IZENDUNAREN LIKIDAZIOA.
373	2020	19/02/2020	KIROLAK	GIPUZKOAKO KIROL EGOKITUEN FEDERAZIOA. 2019KO DIRULAGUNTZA IZENDUNAREN LIKIDAZIOA.
374	2020	19/02/2020	KONTUHARTZAILLETZA	ARDURA ZIBILEKO 2020KO POLIZA
375	2020	19/02/2020	HIRIGINTZA	RONDILLA KALEA 16KO UR HORNIDURA HODIAK KALEKO ARKETA BATETIK PORTALEKO ARMAIRURA ALDATZEKO OBRA AMAIERAKO DOKUMENTAZIOA ONTZAT EMATEA ETA IPINITAKO FIDANTZA ITZULTZEA
376	2020	19/02/2020	KONTUHARTZAILLETZA	HONDAKINEN TASA - OKERREKO SARRERA ITZULTZEA
377	2020	20/02/2020	GIZARTE ZERBITZUAK	PEÑASKAL KOOPERATIBARN BIDEZ EMANDAKO ESKUALDE MAILAKO LAGUNTZA TEKNIKOEN 2019KO GASTUA BANATU.
378	2020	20/02/2020	IDAZKARITZA	GIPUZKOAKO FORU ZENTRALAREN BIDEZ



TOLOSAKO
UDALA

ZKA	URTEA	EGUNA	SAILA/AZPISAILA	DESKRIBAPENA
				IGOGAILUAK MANTENTZEKO LANAK KONTRATATZEKO ESPARRU-AKORDIOTIK ERATORRITAKO KONTRATUA ORONA,S.COOP ENPRESARI ESLEITZEA
379	2020	20/02/2020	EUSKERA	GARABIDE ELKARTEARI 2019KO HITZARMENAN ADOSTUTAKO % 25A ORDAINTZEA.
380	2020	20/02/2020	EUSKERA	GALTAZUNDI EUSKARA ELKARTEARI 2019KO HITZARMENAN ADOSTUTAKO % 25A ORDAINTZEA.
381	2020	20/02/2020	EUSKERA	HERRIKIDERI 2018-2019 IKASTURTEKO 2. ORDAINKETA EGITEA.
382	2020	20/02/2020	EUSKERA	ORIXERI 2018-2019KO BIGARREN ZATIA ORDAINTZEA.
383	2020	20/02/2020	AZOKAK	GIPUZKOAKO MERKATARITZA FEDERAZIOAREN HITZARMENAREN LIKIDAZIOA, BIGARREN ORDAINKETAREN ONARPENA
384	2020	20/02/2020	KONTUHARTZAILAZIA	IBILGAILUAK. PERTSONA DESGAIUENTZAT SALBUESPEN ESKAERAK EZ ONARTZEA.
385	2020	20/02/2020	KONTUHARTZAILAZIA	IBILGAILUAK. PERTSONA DESGAIUENTZAT SALBUESPEN ESKAERAK EZ ONARTZEA.
386	2020	20/02/2020	KONTUHARTZAILAZIA	IBILGAILUAK. PERTSONA DESGAIUENTZAT SALBUESPEN ESKAERAK EZ ONARTZEA.
387	2020	20/02/2020	KONTUHARTZAILAZIA	IBILGAILUAK. FAMILIA UGARIEN HOBARIA. ESKAERAK EZ ONARTZEA.

Batzarkideak jakinaren gainean geratu dira.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 11:55ean.

ALKATEA

JARDUNEKO IDAZKARIA